

## 298 COLERAREN IRAUNGVITCECO

*Coleraren irauungvitceco hirur garren eremedioa,  
ez orduan lehiatzea, colera iragan ar-  
seino pausatzea.*

## CAP. XXIII.

Aurelius  
vator in  
vita Theod



Irur garren erremedioa ez hasser-  
rerceco eta coleraren irauungvitceco  
edireiten dena da, Livio Philoso-  
phoac bere discipulu Theodosio  
Emperadoreari eman cioena, erraiten cioela.  
Badaquit Emperadore handia, cenbait aldiz,  
hasserretuco eta coleran iarrico çarela. Bada  
orducotçat eman nahi deratçur conseillu ou  
bat. Hala çarenean ez, quecha, ez lehia ez  
bere hala abia, iguriqui apparbat: Ez albaite  
neça deus eguin, ez errã eta ez aincina A. B. C.  
eta hey darrarizen bertce letrac erran arteño,  
edo hartacb, espatioa, bitartea eta dembora  
iragan arteño har albaitecneça, hain bertce  
astu eta pacientia.

Prouerb.

Hunetara dio Spiritu sainduac. *Ne proferas  
in iurgio tuo.* Ezteçaçula liscarrean ahotic hit-  
ça fite athera. Conseillu haur beror eman ce-  
raucan bere nabasi Atenedoro philosophoac  
ere, etchetie partit ceracoan, Octauio Augu-  
sto Emperadoreari. Eta Conseillua, hain par-  
te onera, hartu çuen Emperadoreac, non vithe

## HYRGARREN ERREMEDIA 299

bat guchi ago, eduqui baitçuen etchean, con-  
seill'aria. Anhitz bertcece ere eguin du pensu  
haur ediren du coleraren contraco erremedio  
haur; eracuti du hirzez eta obrax ere, on dela  
colerac diotlanaren appur bat luçatcea, balane-  
çan beçala educitcea, ez bere hala deliberat-  
ceca. Ceré colera era lehia eztira conseillari o-  
nac. Eta badio Senecac ere.

*Magnum remedium ira est mora.* Hiraren mende-  
catceco desira desordenatuaren, erremedio  
handia da. luçatçea pausatcea, ez lehiatcea.  
Ceren Ciceronec dioen beçala. *Nunquam ir-  
atus mediocritatem illam tenebit qua est inter nim-  
ium & parum.* Eztu behin ere guiçon hasferre-  
tuac behar den neurria beguiratuco, peril da,  
gutiz edo soberaz hutz eguin deçan. Eta ha-  
la hasferre çarenean, çaren veldor, çau de gui-  
bela, eztaguiçula orduan, gogoac diotfun gau-  
çaric. Ceren orduan itsu çata, erho çara, na-  
hasia çata, desarraçoiña ere, atroçoiñ idurit-  
cen çaitçu. Marinelaç dembora eder denean,  
vela eguiten du, baiña tormentan gueldi dago.  
Hala bada çu ere, nola hasferre çarenean,  
dembora gaxtoa baita, tormenta baita, çau de  
gueldiric çau de portuan, çau de etchean, pau-  
sa eçaçu, ez deus eguin eta ez erran, dembora  
eder atceiño, coleraren tormentac diraneiño.  
Ceren Menandroc dioen beçala. *Omnia qua  
in acus agis, post modum errata inuenies.*

Senec. lib' 2  
de ira. cap.  
34.

Cicero lib.  
1. Officior'

Hasferreturic eguiten duçun guztia,

## 300 COLERAREN YRAYNGVITCECO

Senec in pr edirenen duçu, ondoan, gaizqui eguina dela  
Eta badio Senecac ere. *Fims ira intum est pa-*  
*nitentia.* Hiraren eta coleraren fina eta acca-  
batcea da, vrriqui menduaren haftea.

Ioseph li.  
antibair.  
Iudaeorum  
cap. 9.

Herodes icen hunetaco lehenbico Erre-  
gue lentil harc, hilcuē Martannes bere emaz-  
tea coleran, telofiaz, gogan behar batez, eta  
hain arinqui laburqui eta lechiaruqui, nō mun-  
duac iaquin çueneco, eguin baitcen colpea.  
Baina guero colera hotzctic eta hobequi in-  
formauric, iaquin çuenean eguia, eta içan  
fegorantça hoben gabe hil çuela hain dolutu,  
eta atfecabezatu cen, eta ethorri çoraccco  
pontura, non guero bere etcheco zocco guzti-  
ctan, bere icenaz deitcea çuela, bere emaz-  
tearen billia, oihuz baitcebillan: hartan bere  
leheneco erhoqueriaren gainera bertce bat,  
are handi agoa eguiten çuela.

Coleran çarenean eguiten duçu anbitz er-  
hoqueria, eta guero colera hura ioan çaitçu-  
nean, ethortcen çaitçu, erhoqueria hequen  
vrriquia eta eguin ezpacinitu nahia.

Eta are lehen bertceren contra hafferetcea  
cinena orduan (Senecac dioen beçala) ceure  
buruaren contra hafferetcen çata. *Italus cum*

Senec in  
prouerb.

*irafci desertu tunc uascitur sibi.*  
Hafferearē obrac eztira behin ere complituac,  
bethi dira cei baiien efcas, hartçaren eta ora-  
ren ymeac diren beçala.

Çeren amac diren coleratsu halatan dira,

## HIRVR GARREN ERREMENDIOA 301.

vmeacere faltatfu: hartçarenac, tronco bat beçala, eta otarenac itfu sortcen baitira.

Laudatcen da Archita Tarentino hura, eeren bere burua coleratua eçaguturic, erran baitcioen bere lagun bati. *Cederem se nisi traſcerer.* Ceha intçaquet, baldin haſſerte ezpa-

nintz. Erran baillio beçala. Esquet emoc ene coleran egonari ceren beicela, h.rruco ituen egun heureac. Laudatcen da ha.aber Platon famatu hura, ceren bere adifque bati, ceha a-

raci baitceraucan bere muthila veldurtez, berac bere coleran, barren eguiſarcitçan eſcuac Iccuſfaçu nola Philoſopho hec, guiçon çuhur adimenduric hec beguraten ciren bere haſſerreduretan: veldurtafun handi batequin go-

uernatcen ciren bere coleretan. Ceren baitci-aquiten ecen guiçon coleratua, erho baten pare cela etcego ela bere baitham. Halatan

dio San Baſilibioc. *Momentanea quedam infania eſt ira.* Erhoqueria labor bat dela hira, colera

Eta vſte çuen Plac. ecen guiçõ haſſerrearẽ, eta adimèdutiç iauciarẽerhoçuemac, etçuela bert-

ce diſſeierçiaric, batac gati ago eta berceac gu chi ago irautea baicẽ. Cere haſſerretari, ſitetz ago iragaitẽ baitçaica bere haſſerretafuna, er-

ho erho ri bere erhotafuna baino. Baiña gaiñe racoan, bata haſſerre eta bercea erho diren bi-

tarcean, hain ongui, lot, vzcãl, eta amarra, ahal deçaquere bata, nola bertcea. Ceren orduan biac baitira berdin, biac baitira erho.

Lact de ira  
cap. 18.

Baſil hom.  
de ira.

## 302 COLERAREN IRAVNGVITCECO

Era nola baita, erhoqueria handia, erhoaz-  
ri, adimendutic-iaucia dago enari predicatcea  
confeillu emaita, eta çuhurtciáz minçatcea:  
hala da halaber, erhoqueria ez tripia, colera  
handi batean itsutoa, eta iraqitua dago enari  
hala dago enean, auenicoaz minçatcea, bere  
etsaiari barcca diaçola erraita. Ceren bere  
bero hartan coleraren leheabico apoderan,  
abiadurá eta indarreá, ezta bere buruaren iaun  
eta ez iabe. *Nec ira consilij est repletus capax.*  
Coleraz betheric dagoena, ezta confeillu hart-  
ceco gai. Aitctic baldin orduan, nehorc ha-  
laco gauçatic, auenicoaz coric, aippa badiaço  
aippatceaz beraz ere errabiaccenda, errateen  
da arneguz eta iuramentuz hastenda. Eta ha-  
la baldin hasserre direnen, eta haucitan dabil-  
çanen artean, ongunderic, eta auenicoaric e-  
guin nahi baduçu, ez bere hala lehenbieico  
egunean ekhin, vtzquitçu, baldin hahi baduçu  
colpea legur eguin, appur bat hotztera, vnhat-  
cera era elcarren bippiltcera.

Ceren midicuaç ere ezrío eritasunari, goren  
pontuan denean, ecin bertceç baicen purgaric  
emaiten.

Beraz hunelatan on da, Liuio Philosopho-  
ac eman cuen confeilluaren hartcea, hasserre  
denean appurbat iguriquitcea, cenbait den-  
boraren, deuseguin gabe iragaitura vitztea.  
Ceren Stacio Poetac dioen beçala. *Da spacium  
temerique moram male cuncta ministrat imperus.*  
Lethiac colerac eztu gauçatic õgui eguité, guz-

August ad  
fractis 10  
Eremo

## HIRUR GARREN ERREMEDIAO 303

tiac hasteintu gaizqui, eta accabat cen gaizqui ago. Vici beharda beraz appurbat hotztera, eta iragaitera. Ceren haur da coleraren iraunguitceco hirur garren erremedioa, hanc dirauciño ez deus eguitca, paulatcera vtztea.

*Coleraren iraunguitceco laur garren erremedioa da, consideratcea, Et faiee eguiten derauz quiguten bide gabeac Iaincoaren gaztiguac direla.*

## CAP. XIV.



Aur garren erremedioa coleraren iraunguitceco eta et faiac eguiten derauz quigun bide gaben ere pairatceco: da, Iaincoaren ordenamenduaren consideratcea, eta pensatça. et faiee eguiten derauz quiguten atsecabeac, Iaincoarê escutic heldu direla, hanc permititcen dituela haren purgac direla. Huren arauaz et rancioê gure salbatçailleac berac heriotce errecibitceracoan, Iondone Petriri. *Calicem quem mihi dedit pater, non vis ut bibam illum.* Ezuçu nahi neure, aitac enian derautan Caliça edan deçadã? Heriotce errecibi deçadan? Hanc ordenaturic daduçã penac eta traballuac, paira ditçadan? Iaincoaren ordenamendu huni behatcen cioen, Etregue David sainduac, Semey ceritçan batec, maradicinoac egorzien ecerauçanean. Eta hala erran cioen.

Ioan. 18.

## 304 COLERAREN IRAVNGVITCECO

2. Reg 16.

Abisairi, maradicino hequen egotzlea, gazti-  
garu nahi çuenari. *Dimitte illum ut maledicat*  
*iuxta præceptum Domini.* Utçaçu maradi a na-  
çan launaren manuaren arauaz.

Ceren ezleçaque ez guçon horrec, horre-  
laco aufartçariç har, baldin laincoac permit-  
tit cen eta efcu emaiten ezpalio, viçaçu beraz  
berra nahi duen guztia, compli beça lainco-  
aren manua eta ordenamendua.

Etsaiac laincoaren açoteac eta cigorrac di-  
ra. Etsaiac laincoaren iusticiaren muthilac, eta  
borreroac dira. Beraz ezçara hequen contra  
hasserretu behar. Ceren cer hoben du açoteac?  
Cer culpadu borreroac? Baldin prefuna batec,  
hautsten baderatçu harri batez burua, cer fal-  
ta du harri harç? cergatic eman behar dioçu har-  
ri harri colperic? Orac eguiren du hori, prefuna  
vçiric, lorçẽ batçarça harriari.

Erran ciotenean Iob fainduari haren ardiac,  
cameluac eta bertce onac ere ioan cruztela  
ohoiñec, ercẽ bat ere hasserretu eta ez arrencu  
ratu ohoiñen contra. Ceren baitçiaquien ecen  
ohoiñ hec laincoarẽ iusticiaren muthilac cire-  
la eta ceren laincoac permititu baitçerauç, eta  
bere ardiac eta gairaçaco onac ere ioan cetaut  
çatela. Eta halatan ohoiñez contu guti egui-  
nic erran çuen. *Domus dedit Dominus abstulit,*  
*sicut Domino placuit ita factum est, sit nomen Domini*  
*benedictum.* launac eman launac edequi launac  
plaçer çuen beçala eguin da biz bada launac

Iob. 1.

## COLERAREN IRANVGUITCECO 305

leena benedicatu.

Iccusten duenean haurac bere amaren escuã cigorra eta hartçaz emã nahi dioela, behatcen ago dio amari, cigorrari baiño. Ceren bartaqui ecen, baldin amac nahi ezpadu, ezuoela cigorrac minic egutnen. Hala bada guc ere etsaiac diugunean, eta hec calteac, eta bide gabeac eguiten, edo eguin nahi derauzquitenean, behatu ago behar diogu laincoari, eta haren misericordiar, etsaiy baiño.

Ceren etsaiac, baldin laincoac permititcen expaderaue, eta guibelatu nahi baditu, ezpaiterac ute calteric eguinen. Era halatan erran cioengure salbatçailleac ere Pilatosi. Ioan. 19.

*Non haberes in me potestatem, nisi datum esset tibi desuper.* Etcenduen enegaiñean e curic, eta ez bothereric i çanen, baldin eman ezpalitçaitçu han goititic.

Ceure etsaiac anhitz bide gabe eguiten deratçute, eta iccusteintu laincoac bide gabe hec, badaquizqui, eta nahi balu ezlia çaiçute halacoric eguin, debeca litçaque: ordea eztu debeatcen.

Ceren san Agustinec dioen beçala. *Cum Deus aduersis rebus exagitat, aut merita examinat, aut peccata castigat, aut mercedem mihi aeternam, pro malis toleratis seruat.* Ceure etsaiac eguiten derauzquitçuten bide gabe hetçaz, edo nahi ditu laincoac çure obrac, eta merecimenduac, ea finac, eta eguiazcoac direnz frogaa



## 306 COLERAREN IRAYNGVITCECO

zu, eta examinatu : edo çure beccatuac he-  
men, bertecetan, ez gaztigatcea gatic, gazti  
gatu : edo finean hequen pairamenduaz, eta  
sofrimenduaz, hec pacientqui pairatceh, eta  
sofritcen ditutçula, pagamendu handi bat,  
ceruco loria eman.

## §. I.

**E**Tsaiac, eta fortuna gaixtocac ditutçunean,  
bide gabeac eguiten derauzquitçutenean:  
orduan behar dioçu Iaincoari behatu hartçaz  
orhoitu, harequin consolatu, eta ceure bai-  
than pensatu, hec guztiac Iaincoac igortcen  
derauzquitçula; eta noiz, eta mundu hune-  
tacoçat baitihoatçu gaizquienic, orduan bai-  
din cerori nor baçara, diahoatçula bertce  
munducoçat hobequienic: Eta Iaincoac vste  
balu etçarela harentçat içanen, halaco pena-  
ric, eta atsecaberie ezliaçaiçula eman, baiña  
vtz cinitçaqueyela, nahi duçun guztiaren  
eguitera, eta ceure placerera bicitcera.

Midicuac eifituz guero, esperantça galduz  
guero, vtz dio exiari, nahi duenaren eguite-  
ra, nahi duen beçanbat, nahi duenetaric iate-  
ra, eta edatera, eztio deus debecatcen, ceren  
eifitu baitu. Baiña duenean esperantça senda-  
tucodela, debecatcen derautça erdi gauçac,  
appetitu gati vtzten dio complitcera. Hala-  
bada çure Iaungoicoac ere, beccatore exiari,  
esperatçaran deuea, sendatucodela, eta salbatuco,  
dela debecatcen dio an hitz gauça, ezteraut-

## LAVR GARREN ERREMEDIQA. 307

ça bere plazer guztiaç complitcera vrzten emaiten, dio anhitz purga, eta malenconia; nahi du, dituen etsaiac, eta eguin diatçoten bide gabeac. Eta hura guztia da, seinale ona. Ceren hartan da agueri, eztuela oraiño laincoac hartçaz etsitu, eztuela gogatu, eta ez esperantça galdu.

Eta haur da consolamendu handia, etsaiac dituenaren, eta bide gabeac errecibitcen diruenarentçat, iaquitea, eta consideratcea, hec guztiaç laincoaren purgac, eta açoteac direla, eta guztiaç haren probetchutan direla. Eta hala ez etsaiaganic, baiña laincoaganic, adifquide guztien gaitico, adifquideaganic, heldu direnac beçala, errecibitu behar dituela.

Eta baldin hala errecibi balitça, eta bagunitça, ezquindezque, eguiten garen beçala etsaiaren contra colera, eta ez gueure baitan barrena ere egos, eta malenconia.

Etranen duçu. Etçarela ez hasserretcen etsaiaren contra, eguiten edo erraiten: derauzquitçun gaizquiac gatic, eztuçula hargatic gaitz esten, ceren badaquiçula hec guztiaç laincoac permititcen dituela. Baiña gaitz esten duçula, bere intencione gaixtoa gatic, vorondate vherra gatic. Ceren çuc hari ðccasinotic emangabe, eta bide gaberit ere eguin gabe, guztiarequin ere, hala darraitçun, eta gaitz nahiderarçun. Hunela erraiten duçu, ez ordea ongui. Ceren çuc eztuçu behatu be-

## 308 COLERAREN IRAUNGVITCECO

har ceure etsaiaren voródategaixtora, baiña behatu behar duçu ceure Iaincoaré voródate vorondatefura. Ceren haren vorondatea, eta intencionea da, etsaiac eguiten derauzquitçun gaizqui hetçaz, çuri ongui eguitca: hetçaz nahi çaitu oray hemen penatu, guero bertceran ez penatceagatic.

Çauri gaixio bat, burdingoriaz io gabe, ecin fêda ditequeyena, duçunean: Baldinba etçara bui diñgoriaren contra, ceren erratcen çaituen, eta min eguiten deratçun, hañferreruco. Baldinba etçara hain erho içanen. Baiña pacientqui pairatcen duçu, cercn baitaquiçu ecen burdina hura erahiltcen duen barberaren intencionea, eta vorondatea ona dela, cein baita principal. Hala da bada çure Iaincoaren intencionea, eta vorondatea ere ona, eta onera emana, çure etsaiarena gaixtoa, eta nola ahalezcoa içan agatic ere. Beraz Iaincoaren vorondateari behatu beharçaiça, eta ez etsaiarenari.

Eta baldin haur hunela estimatcen, eta pensatcen badugu, nola eguin behar baitugu, ceren hala baita eguia, gueure baithan sofçatceco, eta etsaiac eguiten derauzquigun calteac gatic ez hañferrçtceco, eta coleraren irauñguitceco, erremedio handi bat edirenea dugu.

## BORZ GARRÉN ERREMEDIA. 309

*Coleraren iraunguitceco borz garren erremedia  
da consideratcea cer moldez dagoen  
çure etsai, hasserre denean.*

## CAP. XXV.



Oleraren iraunguitceco, etsaiaren  
contra ez hasserretceco, eta men-  
decatcetie ere guibelatceco, erre-  
medio ona da, consideratcea, nola,  
cer moldez, eta cer estatutan dagoen çure et-  
sai hura, hasserre denean, mendecatu nahiz  
coleratua, çutçaz gaizqui erraiten duela da-  
billanean. Eta edirenen duçu (lehen ere adit-  
cera eman den beçala) orduan çure etsai hu-  
ra, itsu dela, erho dela, centçutic, eta adimen-  
ducic campoan dela. Beraz nola, baldin ba-  
cendu anaia bat erhoa, adimendutic iaucia,  
eta harc anhitz gaizqui eguin, eta erran ba-  
liaçacu, eta bere buruari ere cenbait colpe  
gaixto eman baliaço, damuago baitcendu-  
que, ceure anaia haren calteaz, eta haren ha-  
la içaitcaz, eguiten, eta erraiten derauzquit-  
çun bidegabe guztiez baiño: hala halaber be-  
har duçu içan damuago çure etsai, colerac  
çrauciric dagoen harc, bere buruari eguiten

310 COLERAREN TRAVNGVITCECO,  
derautçan caltez, çuri eguiten derauzquit-  
çunez baiño.

Haur batec, edo succarrarequin nahastric dagoê batec, edo cein gauça erran agatic, etçara bar ere affaldatcen, eta ez ceure sosegatic cantitcen. Ceren baitaquiçu ecen hec eztaquitela cer mintço diren, eta ez cer hari diren. Hala bada coleran dagoenac ere, eztaqui cer mintço den, eta ez cer hari den. Eta halatan halacoagatic, eta halacoac gatic, eguincioen othoitz gure salbatçailleac bere aitari, erraiten cioela, *Pater ignosce illis quia nesciunt quid faciunt.* Aita barcca iaceçu, eztaquite cer hari diren. Ceren coleran baitaude. *Cogita quod non est in se, qui vituperat, sed insanus, et non moleste feret consumelias ipsius,* dio san Crisostomoc, pensa eçacu eztagoela bere baithan gaizqui erraiten hari dena, baiña adimendutic campoan dela, eta baldin hala pensatcen baduçu erraxqui pairatucoituçu eguiten derauzquitçu bide gabeac. Prefuna hofferretuac ez tubere burua eçagutcen eta ez nchor icculten, itfu da. Eta itsuac incontru ioitea, eta iragaitean aurizquitcea ezta miresteco, etçara hargatic hasserretu behar; eta hasserretçecoz ere, ceure buruaren contra hasserretu behar çara, eta ez itsuaren contra, eta ez coleran dago enaren ere. Ceren çu baitçara argu eta hura itfu: çu çuhur, eta hura erho: çu ceure tentuan eta çentçuan, eta hura han-

Luc 23.

Chrysof.

Hom. 79.

Tom. 2.

## SEY GARREN ERREMEDIAO. 311

dic arhean, eta campoan. Beraz paira beça çuhurrac erhoa, arguiac irsua, eta colerarie eztuenac colerá dagoena. Haur da erremedio ona, etsaiari barcatceco, eta pairatceco, haren eguin erranez conturic ez eguiteco, nola, eta cer moldez dagoen, coleran dago enean, considerateca.

---

*Coleraren irauguitceco sei garren erremedioa.  
ez bilhatcea cer diosen guicaz iendec.*

## CAP. XXV.



Ere sofeguan egoiteco, affaldatu gabe, eta hasserretu gabe bicitceco, ezta bide gaixtoa, gutçaz iendec cer erraiten duten ez bilhatcea eta ez galdeguitea. Hala erraiten du Senecac, *Non expedit omnia videre, omnia audire, multa iniuria nos transeant, ex quibus plerasque non accipit, qui nescit.* Ezta compli, ezta on, gauça guztien iaquitea, iccustea, eta ez ençurea: iragan bedi anhitz gauça, guc iaquin gaberit, ceren ezta quienac eztu dauuric hartcen.

Nahi oaducu sofegu onean, eta hasserretu gabe egon, ez sobera galde, ez sobera bilha. Billa dabillanac edirenen du, eta batean ezpada bertcean, bere burua eguitecotan ibenitico du. Ezta on barrendari içaitca, ezta om

Senec. libo  
3. de ira  
cap. 11.

## 312 COLERAREN IRAYNGVITCECO.

celatan egoitea, eta ez iragaiten diren gauça guztien iaquitea. Anhitz eran ere eccartcen derauzquigute elha-berriac, erran-merranac, ençuren dugu cer dioren vrliac, eta sandiac, hunelacoc, eta halacoc, eta gueroc ere defros gara iaquitera. Baiña guero iaquin dugunean, edireiten dugu nahi ezruguna : eta guero handic iauzten, eta coleratcen gara. Eta are orduan anhitz gauça eguin behar dugu, gueure ohorea gatic ere, baldin iaquin ezpagueñdu, ezpa:quinen halaco eguitecotan içanen. Eta hala hobe da anhitz gauçaren ere, ez iaquitea.

Eta are guehi ago iaquin agatic ere, on da dissimulatcea, ez iaquin iduri eguitea, ez iabercea, ez bere gairera hartçea, edo defencufarcea.

Erregue Saulez Erreguetu berrian, mintço ciren iende batçut gaizqui, eta hain hurbil, eta haguitz, non Erreguec berac aditçe baitciten. Ordea hurua bertce alderat itculi, eta dissimulatu çuen, ez aditu iduri eguin çuen. *Dissimulabat se audire* Eta halatan, handic pitz ahal citequeyen su guztia irauñgui çuen.

Egun batez Arquelao Erregueari, carrican iragaiten cela, aurtitqui cioten cenbait vr burutic behera. Era ezraquigu ala vste cabean, ala berariaz. Baiña compaiñiacoac hafi ciren erraiten, hura cela aufartcia handia, eta baldin

SEIGARREN ERREMÉDIOA. 313

baldin gaztigatcen ezpacen, hurrenecoan  
 guehi ago eguiven çutela. Ordea bere hala Plucan in  
 Erreguec berac sofega aracicitné, erraité çue- Aphokthē  
 la. *Non me respersu.* Euçue baquea, ezta bide  
 gaberic eguin. Vr haur aurthiqui duenac,  
 eznav ni butti, ceren etciaquien ni' nint-  
 ceta. Etçuen bere gaiñera hartu, eta ha-  
 laran hobequi ago, eta erraxqui ago, erre-  
 mediatu çuen, eta itaungui pitztera cihuan  
 sua.

Vespasiano Emperadoreac hain çuen con- Aurelius  
 ditione ona, eta onera emana, ecen nahi et- Victor de  
 çuen beçala, edo haren presunari etcegoçan vitis Impē-  
 beçala, nehor minçatcen ceicanean, edo dis- rato.  
 simulatcen çuen, edo cenbait hitz iocola-  
 riz eta dostailluz, cenbait irti, eguiteco sol-  
 hafez edertzatcen çuen, eta guero bere ce-  
 gocan ohorearequin, deus galdu gabe, guel-  
 ditcen cen.

Hala Erreguec Antigonoc ere, ediren bait- Senec. li. i.  
 cen egun batez hartçaz gaizqui mintço ciren de ira, cap.  
 compaiñia batetan, erran cerauen. *Longius* 22.  
*discedite, ne vos Rex audiat.* Coaste vrrun ago,  
 Erreguec adi etçaitçaten. Beraren contra  
 mintço ciren, eta berac apartacitecilla erran  
 cerauen: eta handic bera laudoriorequin, eta  
 bertceac, ahalquetuac, guelditu ciren. Iaqu-  
 nez guero, ençunez guero, eta entçunari ia-  
 beturic, bere gaiñera hartuz guero, gaitz da  
 coleratu gabe, mendecatcera enfeiatu gabe,



## 314 COLERAREN IRAUNGVITCECO

colperic eguingabe, edo haucitan, eta eguitecotan, sarthugabe guelditcea. Cererremedio bada, hautatic guztiotaric escapatceco? Ez deusgalde, ez bilha, ez iaquin; eta iaquinez guero ere, eguin ez iaquin iduri, dissimula, ez eguitecoari iabe, ez bere gainera har, eguin bere burua itsu, mutu, eta gor.

Haur da erremedio ona coleraren irauunguitceco, bere buruari eguitecoric ez emaiteco, diferenciarian nehoerquin ez sartceco, eta baquean, eta sofeguan, coleratu gabe egoiteco.

---

*Coleraren irauunguitceco, gaineraco bertec  
erremedioac, capitulo hunetan, la-  
bur? qui eçarriaa.*

## CAP. XXVII.

**T**Airu, eta paciencia içaiteco, bata bertcearequin ez haslerretceco, considera deçagun, ecen Adanen seme guztioç, eta guztiz ere guirifinoc, gorputz bat garela, eta gorputz hunen buru, Iesu Cristo gure salbatçaillea dela. Hala erraitendu iondone Pauloc. *Vnum corpus sumus in Christo Iesu, singuli autem alter, alterius membra.* Gorputz bat gara Iesu Cristo bai-

## AZQVEN ERREMEDIOAC. 315

than, eta bata bertcearen miembro, eta parte. Beraz hunelatan elccar onhetsi behar dugu, gorputz eco miembroec, eta partéc elccar onhesten duten beçala.

Gorputz eco miembroetan ezta imbidia-ric, eta ez mendecuric. Oññac cerbitçatcendu escna, eta escuac oiña. Oññari behazto patu agatic, eztio escuac colperic emaiten. Hortzec mihia autsiquitcen dute nean, norc hargatic atheratecintu hortzac? Beguiac leccu goragoan daude, oiññac baiño, ordea hargatic, beguiecc ecertan dadutçate oiññac, eztimatceintuzte, eztuzte arbuiatcen. Añititice ahal daguiten guztia elccarri laguntceñçaitça, eta baldin eguiten ezpaçaitça, bere caltetan faltetcen dute: Ceren baldin beguiecc arguitcen ezpaderaueça ofney, oiññac behazto patuco dira, eta beguiac iracico. Sabelac iaten ezpadu, çangoac flacatuco dira, eta bai sabela bera ere ñhartuco. Ez laguntcea, bat bederac bere caltetan eguiten du. Eta halatan haur icuffiric guztiecc elccar daducate, elccarri laguntceñçaitçate elccar onhesten dute. Eta bat ac bertceari, cerbaitetan huts eguin agatic, elccarri pairatcen, eta barccatcen diote. Hala bada guc ere elccarri pairatu, eta barccatu behar diogu, eta amorio eduqui, ceren gorputz bat, eta gorputz bateraco miembroac, eta parteac baiçara.

## 316 COLERAREN IRAUNGUITCECO

## §. I.

Aelianur.

**H**alaber coleraren iraunguitceco on da cerbait lani jotcea, bertzetan pensatcea, gogoaren aldatcea. Hala erraiten duze eguiten çuela Climas ceritçan batec, coleraren eritasunaz vçuitua sentitçen cenean, aldatcen cela; bertce eguitecotara, foimuz, eta cantuz hasten cela, eta halatan bere gaitza, eta colera ahanzten ceitçala, eta sofegatua guelditcen cela.

Halaber erremedio ona da, coleraren guibelatceco, consideratcea, ceure ere anhitz huts, eta falra eguiten duçula, baiha hargatic eztuçula ceure burua cehatcen, eta ez penatcen. Erremedio haur vçuitu çuen Senecac, erran çuenean. *Poteris non irasci, statim visque, si sibi tacitus ad singula, quibus offenditur, dixerit. Hac et ipse commissi.* Badagoque hafterretu gabe, bide gabeac errecibitcen dituena, baldin orduan berean, erraiten badio ichilic, bere baithan bere buruari. Nic neronec ere eguin nuen noizbait hunein bertce. Eta badio san Gregorioc ere.

Senec. lib.  
de ira cap.  
28.

Gregor. in  
Moral. li. 5.

*Quasi aqua ignis extinguitur, cum surgente furore animi, sua cuique ad mentem culpa reuocatur. Quia erubescit, peccatis non parcere, qui Deo vel proximo, saepe se recolit parcenda peccasse. Vra luaz iraunguitcen den beçala, iraunguitcenda co-*

## AZQVEN ERREMEDIAC. 318

Iera, ere bat bederac bere faltén gogoratceaz. Ceren ahalquercenda, edo ahalquertu behar luque, bertceri ez barccatceaz, berac barcca-quiçunguehi ago, edo hain bertce duenean. Ezta çuhurtcia, faltetan erortcen denac faltatan erortcen denaren gaitz estea, eta gazti-gatcea. Ceren halatan berac ere bere burua, gaitzetsi, etagazti garu behar bailuque.

## §. 2.

**H**Alaber coleraren iraunguitceco, onda, adisquide baten. Mecenas baten aldacan içaitca. Hare limburtcera çoha cinean, colerac itsuturic erhoqueria baten eguitera çaramacinean, capatic thira çaitça, auifa çaitçan, eta erortceric beguira çaitçan. Guizon bat cihoan behin, bere gogoz bertce baten hiltcera: eta itcusuric bere adisquide batec, nola cihoan, galdeguin ceraucan. Norat çoaz horrela barmaturic? ihardersi cioen. Hunelacoren, vrliaten hiltcera noha. Eta cer içanen da, baldin hare çu hiltcen baçaitu? Ezhintcen horretçaz orhoitcé. Adisqu deac orhoit araci çuen, eta orhoituric, guibelaz bifur araci çuê.

Anhitzeran eguin cioen officio haur Mecenas bere adisquideac Augusto Cesar Emperadoreati. Eta guztiz ere egun batez, Emperadore hare, colerac itsuturic eman baitçuen sententia gaitxo bat, eta haren arauaz

## 318 COLERAREN IRAYNGVITCECO

iende handia, baitceramaten galtcera, esquiribatu cioen Mecenas bere adisquideac, eta igorri escutic escura, bera iend'artean vrrun egonez, buthün laburbat, erraiten cioela. *Sar-*

Zonat. T. 2.  
Annal.

*ge carnifex.* Iaiquiadi carnacera, iccuffac cer hari aicen borroera. Emperadoreac buthün hura hain laburra, eta cinezcoa errecebitu quenean, note eguina cen, icenic ezaquener, eçagucu çuê bere adisquidearen letra, eta escua; hartu çuen parte onera, eta bere hala, bere falta eçaguturic, colerac eraguin ceraucala iccussiric, barccatu cerauen guztiey. An huz valio du adisquide leyal baten bere compaiñian içaiteac, hanc egutac erran diatçon, eta deuserran gabe ere, vecondoaz vtqui deçan edo begui az kheñu eguin diacon. Ceren batçutan guchi ago eguiten du kheinuac, mihiac baiño. Gauça baten eguitera çohaçineã, eta ceure adisquideac eztaguiçula, erraiten deratçunean, ezalbaitcenegui, guibela albaitc indeci. Ceren comuniqui orduan hobequi dacusa çure adisquide hanc çue baiño, Ceren çu nola baitçau de deliberatua, eta bai batçutan passionatua, eta irsutua ere, eztaçu den guztia iccusten. Baiña çure adisquideac ezta passioneric, argui ditu beguiac, hanc den beçala, eta behar beçala, iccusten du.

Etçait egundaiño neure adisquidearen auisuaren contra, eguin dudan gauçatic, ongu guerthatu. Midicuat ere, munduco ho-

AZQUEN ERREMEDIOAC. 319

berena bada ere, eritcen denean, bertce midicuen escuetan vitzten du bere burua, bertceren auisuz, eta ordenantçaz midicinatcen, eta errecaicçen da. Bada coleran dagoena eri da. Beraz nahi badu sendatu, beha bequio bere adisquideari, gouerna bedi haren conseilluz, eta auisuz, ceren halatan edirenenda ongui, eta ez bertcela.

Finean ez coleratceco, eta colerac dioscun gauçatic ez eguitecò oraicorç azquen erremedioa da, consideratcea, eta gueure baithan barrena pensatcea, cein gauça ona, placenta, eta ondore onetacoa den, ez iharduquitcea, mendecn bilha ez ibiltcea, baquean egoitcea.

*Quis enim labor est fratri indulgere conturbanti? Labor quidem in remittendo nullus, in retinendo autem inimicitias maximus, si quidem iracundia liberari, maximam redat menti quæstem, & valde hoc est facile volenti. Neque enim necesse est maria transfretare, nec longis uinervis peregrinationem subire, nec montium excelsa ascendere, nec pecuniam impendere, nec corpus intendere, sed sufficit velle tantum mado.* Cer trailla da etlaiari barcatcea? Ez bat ere, dio san Crisostomoc. Ceren ezta hartaracotçar itzaforie iragan behar, ez bidean ibili, ez mendian gorraigan, ez diruric gastatu, ez gorputzic higtatu, eta ez bertce traillauric hartu; nahia behar da, eta ez bertceric. Baiña eguiteco hãdia da, eta pena garria ez barcatcea, ea nondic

Chrysoſt.  
ſerm. 22.  
T. 2.

## 320 COLERAREN TRAVNGVITCECO

edo nola mendecatuco den bethiere gogoe-  
 ran egoitea. Eta ezpere comparaitçatçu, eta  
 comunzta elccarrequin, etsaitafunean, eta  
 mendecatceco desiran ibili çaren dembora,  
 eta etsaitafunic gabe, baquean egon çarena,  
 edo çaudena: eta iccuslico duçu cer different-  
 cia den bien artean, cenbat dohan bateic  
 bertcera. Edirenen duçu ecen, lehen anhitze-  
 tan ere, compainia barçuetaric aldaratu be-  
 har cenduela, çeren hanguertharicen baitcen  
 cenbait çure etsai. Halaber edirenen ducu, le-  
 hen cinela guerlan, eta orai çarela, victoria  
 erdietsiric, baquean. Ceren san Crisostomoc  
 dioen beçala. *Victoria contra iram est quidem  
 maxima, non eum iniurias vlciscimur, sed cum eas  
 æquo animo toleramus.* Etsaitafuneco victoria,  
 eta garaitia, eztago ez mendecatcean, eta ez  
 ordaiñaren bihurtcean edo doblearen: baiña  
 dago barccatcean, eta bide gabèn patientqui  
 pairatcean. Ceren orduan ceure etsaia, ceure  
 burua, eta Deabrua ere garaitcen baititurçu,  
 eta arima, eta gorputza ere baquean, fose-  
 guan, eta fegurean ibentcen. Cein baita gança  
 handia, laudatcecoa, eta lehen baiño lehen  
 gueroco beguira egon gabe, etsaitafunaren  
 vtzteco, lehenen gainera. erremedio ona, eta  
 consideratcecoa.

CERGATIC BEHAR DIOGVN 321

*Cergatic behar diogun gueure etsaiari barccatu  
 eta amorio edugui. Lehenbuico arra-  
 goina. Ceren laincoac manar-  
 cen baitu.*

CAP. XVIII.

**R**Ran dugu cenbat calte eguiten du-  
 en mendecatceco desir, deso ena-  
 tuac, eta hãdic fortcẽ den gaitz eriz-  
 coac, ibeni dugu halaber cen bait  
 erremedio, eta consideracino, ez hasletretce-  
 co, mendecuen vitzteco, eta coleraren irau-  
 guitceco.

Bada orai behar da iaquin eta consideratu,  
 materia huneraco ponturic principalena, ea  
 nola behar dugun gueure etsaiaren alderocot-  
 çat goernatu: behar dugunz etsaia onhetsi ala  
 gaitz etsi

Eta baldin onhetsi behar badugu, ea cergatic  
 cer causaz edo arracoinez behar dugun õhetsi.

Lehenago legue çahartean, leguea gaizqui  
 adituric, etceducaren beccatu etsaiaren gaitz  
 estea. Ceren nola legueac mñaracen bait  
 çuen adisquideac onhetsi eitçatela, eta etsaiez  
 ezpaitçuen deus erraiten eta conturic eguiten  
 handic atheratcen çuten, beraz etsaiac gaitz ets



## 322 CERGATIC BEHAR DIOGVN

ahal citçaquerela.

Math. 5

Baiña cerutic lurrera iausti cenac eracutsi çuen, cer eguin beharceñ hunetan ere, erraiten çuela. *Si enim diligatis eos qui vos diligunt, quam mercedem habebitis, non ne & publicani hoc faciunt.* Adisquidearen onhetsez, cer itabaci cer etquer eta merecimédu vzeduçue içanen duçuela? Ientilec, Iaincoric eçagutcen ezutenec eta iende gaixocce ere, eguisen dure horri, hec ere onhetsteintuzte bere ongui eguilteac. *Diligite inimicos vestros.*

Etsaiac, etsaiac onhetzi behar dituçue, gaiz qui eguiten deratçueçaney eguin behar deraueçcu ongui. Eta cenbatenaz eta hec çuey gaizqui ago, hsnbatenaz çuec hey ongui ago *Vince in bona malum.* Onguiaz gaizquia garaitu behar da.

Ordea cergatic onhetzi behar dugun gucere etsaiac? Eguiten deracunari gaizqui cergatic eguin behar diogo ongui? Dugun iaquin, dugun bilha cenbait arraçoiñ?

Lehenbicitico arraçoiña, alde guztiz lehenblecicoa, ezetz, ezin derraquegun beçala, Oñ escuetan lotcen gaituena, da, Iaincoaren manua eta vorondatea. *Ego autem dico vobis, diligite inimicos vestros.* Nahi duenac berra nahi duena baiña nic erraiten deratçuet çuey, onhetz ditçatçuela ceuen etsaiac.

Cicero de nat. deorũ.

Pythagoras Filosofo handi haren discipuluec, etçuten bertce manuric behar, eta ez

**BARCCATV EFA AMORIO EDVQVI 323**  
 arraçoinic, iaquitea baicen, heque nabufiac  
 erran çuela.

Nabufiac erran du, nabufiac manatu du be-  
 raz hala da eta hala eguin behar da. Haur cen  
 hequen hirtzuntça. Bada guretçat, guc gue-  
 ure etfaiaren onheffeco, ezta asco içanen, on-  
 hetz deçagula laïcoac manateç duela, iaquitea

Presuna batec, bide gabe bat eguiten derat-  
 çuncan, guetthat cen da, emplegatcen baitira  
 bitartecoac eta arartecoac, ongunden eguite-  
 co lehenbicoric ethortcen çaitçu, ceure la-  
 gun bat ceure adisquide-quide bat, eta harc  
 erraiten deratçu.

Badaquit vrliac bide gabe eguin deratçula  
 baiña vrriquitian dago damu du, eçagutcen  
 du bere falta, eta hala ene amoreac gatic bar-  
 catu behar dioçu adisquidetu behar çarete.  
 Honela erraiten deratçu ceure lagun adisqui-  
 deac. Baiña çuçhari erraxqui erraiten dioçu  
 ez etz, ezruçula nahi, ceren ezparçat çaitça  
 ahalque, ezpaitaduçaçu ceure burua baiño  
 guehi agoren.

Çure lagun haren ondoan, harc deuz e-  
 cin eguin duenean, ethortcen çaitçu bertce a-  
 rartecobat, handi agoa eta ahalquesun agoa.  
 Eta ez hain erraxqui, nola lehenari baiña ce-  
 ren colera handian baitçau de hari ere emaiten  
 dioçu eça erraiten diocu, eztaquiçula othoi  
 gauça hartçaz mintça, ceren sobera çaudela  
 errea çaurtua eta guiharran vquitua.

## 324 CERCATIC BEHAR DIOGVNETSAIARI

Azqueneá éplegatcē da erreque berav eta hare bere hala haustē çaitu beratcēçaituētçatçaitça ez etz erraitera aqla: cen.

Bada baldin lurreco parte baten Erregue bati, egun baldin bada bihar içanen eztenari aularteen ezpaçatçaitça ezetz erraitera, mundu guztico Erregueari, Jaincoari berari, nolatan aularrucó çatçaitça ezetz erraitera contratcera, eta manatcen çaiçuenean onhetz deçagula ceure etsaia, eztuçula onhetzi nahi eta eztiçula barccatu nahi, erraitera?

S. I

**E**Rrenen duçu, comunzqui etsaigoan daudenec bere etsaigoaren ede-ztatceco eta estaltceco erraiten duena. Nic Barccatcen diot, eztiotçaitzic desiratcen eta ez ordenatcen. Aircitic nic neuretçat nahi nuqueyen beçanbat ontafun, demolaJaincoac. Baina eznaçaiçica mintçata nahi, eta ez tut nahi mintça daquidan.

Ezta bertcē gauçatic, harequin deus ez tudala nahi baicen. Hunela erraiten duçu bafia eztaquit, ongui erraiten duçunz. Ceren badirudi ecen hunela elcarrequin mintçatcen ez tirenac ez tirela vorondate gaxto gabe.

Eçagü dira bere hitz etá eta solhaserá. Ceren ezterraquete elcartez onguiric, itchorapenez edo baicen: obretan ere elccarrent beharicen eta meneratcen direnean, elccarri a-

## BARCCATV ETA AMORIO EDVQVI 325

ahalez heltcen çaitça.

Bada gogoaz eta vorondateaz denaz beçan batcan, berac ibenceintut leccuco, cerç berec daquite cer vorondate duten elccatren aldera corçar. Eta baldin ongui pensatcen eta confideratcen badute, edirenen dure, badutela barren hartan, cen bait vher dura, cen bait herra eta gorrotu, eta ez dioten beçain bere gogoa eta bihotzac garbi eta clar.

Erremental deguian, harotzaren suregui- an, hauscoac haice emaitetic guelditcen dire- nean, badirudi eztela suric. Ceren bere ha- la iccatzac, ilhaunec estaltcen baitira. Ordea higitçatçu appurbat hauscoac, eta iccusico duçu nola bere hala berriz, sua aguertcen den Hala aguertcen da bada elccarrequin mintçat- cen eztirenen arteco vorondate gaitçoren sua ere, den occasinoric itipiencan elccarren behartcen direnean.

Ordea vorondate gaitxoric eztenean, ez mintçatcea bera, ez salutarcea, edo ez conuer- satcea beccatu othe da?

Vide Casel  
in summa  
verbo odiu

Baldin comunzqui, guiristinoac guiristino equin, ahaideac ahaidequin, eta herricoac herrico equin beçala, bidean incontractean. deus galdeguiten deratçunean, edo berce casuric guerthatcen denecan ihardesten ba- dioçu salutarcen baduçu, eta vorondate gait- xoric ez içan berce gaitçeracoan labuzqui v- ci agatic adisquide mani batequin beçala,

## 326 CERGATIC BEHAR DIOGVN

harequin ez ibili agatic : badirudi ezcela ora-  
duan beccaturic : guztiz ere baldin vste badu-  
çu , maiz minçatetic eta elcarrequin seguit-  
etic , ethor ditequeyela calte, nola ethortcen  
baita batçutan. Ceren badira iende batçuc  
hain occasinotfuaç , arrunquide gairzac bat-  
cari ondicozcoac , eta incontru gaixotacoac  
non hobe baita halacoey alde eguitea , eta  
hequen bidetarie eta incontruetarie ihez egui-  
tea , eta aldarateca , iguriquiteca baiño.

Ordea ceren apartaturic ibiliceac , elccare-  
ren incontruetarie ihez eguiteac , eta eder-  
gallu baicen elccarrequin ez minçatçac ,  
erran nahi bairu , badela bitartean , cen  
bait etfaigoa eta vorondate gaixto , erraite  
hura gatic , etsai fama gatic , etahartan  
emaiten den escandalua gatic baldin errai-  
te hura , etsai fama hura eta escandalua i-  
raunguiccen ez paduçu vorondate gaixtoric ez  
içan agatic ere etçara peril gabe ceure conci-  
entcian , ceren obligatu çara , eta obligatu ga-  
ra , baldin barrencâ guiristino bagara çapoâ ere  
guiristino garela eraçustera eta aditcera emai-  
tera Ezçara obligatu adisquidequin beçala , et-  
faiequin gueure sequeretuez eta eguitecoez  
minçatcera , hequin maiz ibilcera , eta ez he-  
quen gana , adisquidetara beçala ioaitera As-  
co da salutatcea , munduac etsai eduqui ezçait-  
ça queyen beçala bicitçea , vorondate gaixto-  
ric ez eduquitcea , eta escandaluric ez emaitca

## BARCCATV ETA AMORIO EDVQVI 327

Gaiñeracoan norc bere eguitecoac eguin ditçala eta behar duena, behar due narquin solhasta dadilla.

Eguiada ordea, saïdu içaiteco, guirifino comu ney abãtail eramaitcco, ezta asco salutatcea, voródate gaixtoric ez eduquitcea, eta ez escandaluric ere ez emaitca; baiña guzti eguin behar da içan orobar, guzti equin behar da içan solhasturi amoltsu eta arronter.

Eta are guehi ago ezta asco gaizqui eguiten deracunari gaizquiric ez eguitca, baiña ongui eguin behar diogu. Ceren hura da sainduta-suna, perfetatsuna, deboçinoan complitu içaiteca, eta laincoac caritateaz eta amorioaz eman deracun manuaren complitcea?

## §. 2.

**E**Rran dugu barccatu behar diogula gueu-  
Ere etsaiari eta amorio eduqui, ceren hala manatcen baitu laincoac. Ordea noiz manatu orhe çuen? Orcegun saindu arratsean, hii behar çuen bezperan, bere azquen finean, candela escuan harturic beçala cegoenean. Emazteaz orhoitcen da, bere senharrac hiltceracoan, errancioen azquen hitzaz, eta bai semea ere, orduco bere aitaren conseilluaz.

Bada gure laungoicoac bere azquen finean, mundu hunetarie bertcera partitceracoan, erran cerauen bere discipuley eta bequin batean guri guztioy.

## 328 CERGATIC BEHAR DIOGVN EYSAIARI

Ene discipuluac, ene guiristino maiteac. badaçusaçue, nola nagoen nola heriotcea hurbildu çaitan, sarri hil behar dudan, eta neure testamentaren eta azquen ordenuaren eguiteco ordu dudan. Bada ene azquen ordenua, ene azquen vorondarea eta manua haut da. *ut diligatis invicem.* Elecar onhetz deçaçuela etlajari barcca diaçoçuela.

Ioan. 15.

Hunetan içanen çarete seiñale, hunetan içanen çarete eçagutuac, eneac eta ene escolan eta compainian haciac eta iccassiac çareta. *In hoc cognoscent omnes quod discipuli mei estis, si dilectionem habueritis ad invicem.*

Ioan. 13

Badaquiçue, cenbat bidegabe, eguin cioten, Ioseph Patriarcha handi hari bere anatic : Nola gaitzetzi çuten eta saldu çuten: Eta nola guero halabet demboraren buruan, guti vsteric, bere anaia sal duaren beharrera, eta menca ethorti ciren, herçtura handian iarri ciren: hain handian.

Ecen guero bere aita Iacob hilceyenean, hafi baitciren elccargana vilduric, elccarri eraiten. Cer içanen da bada orai gutçaz? Hilda gure aita prestua, ona eta saindua: eta hura bici ceino ongui guinen, segur guinen, ceren haren amoreac gatic, guentre anaiaç barccatcen ceracun.

Baiñs orai, nor valiatuco çaicu? Nor gatic valtatuco deracu? Gogoeta handi çuten bere baitthan. Eta gogoetac, gogoeta eragui-

ten

## BARCCATV ETA AMORIO EDVQVI 329

ten cerauela, errancioten elccarri. Lehen guere aitaren amoreac gatic barccatu ceracfi guere anaiac bada orai ere, haren gatic bera gatic barccatu behar deracu. Eta harraracotçat ioan behar gatçait çà aitaren partez minçatçerra, eta erran behar diogu harquetz molde hunetan. *Pater tuus praecepit nobis anteqm moreretur ut haec tibi verbis diceremus. Obsecro ut oblitiscaris sceleris fratrum tuorum, et peccati atque malitiae quam exercuerunt in te, nos quoque oramus, ut seruo dei patri tuo, dimittas iniquitatem hanc. Quibus auditis flevit Ioseph.* Iauna, erraitendiotre Iosephi bere anaice badaquiçu çure eta guere aita prestua hil dela eta hil ere ongui eta fainduqui bici beçala hil etc. Hiltceracoan çure galdeguin çuen, eta harç beherapen handi bat eguinic erran çuen. Non da Ioseph ene seme maite hurad Erroçue haren iccus minç hãdi batequir hilcen natoçeta. eta neure henadicleonea badioç data. Erroçue halaber, oraino coan seme onac beçala bethi ene vorondatea eguin duela eta orai ere eguin behar duela. Eta ene vorondatea, ene azquen adioa eta orhoitza dela, eztadin orhoit, çuec eguin cinioten bidegabeaz, eta maliciaz, baina nahi deraiçnen barccatu, eta halacoric iragan ezpsilliz beçala, anaiaçafun on bat edoqui, eta eracutçi: Haur gomendatcen diodala, eta ez bertçeric: haur dela ene azquç adioa, eta harç ene amoreac gatic eguin behar duena. Hunela bere aitaren par.

*Illius*  
Gen. 04.



330 CERGATIC BEHAR DIOGVN GVEVRE  
 tez bere anaiac Iosephi, mintçatu ceitçanean,  
 beguiac busli ceitçan, nigarra iauci ceican: eta  
 nola mendecatuco cen ecen, befarca bere ana-  
 iey lothu ceyen, erraiten cerauela. Aitac ma-  
 natcen nau barcca diaçaçuedala: bada halaco  
 aitaren manua, eta halaco punradan eta dem-  
 boran arimac eguitracoan emana, norc eztu  
 complituco? complitu çuen, guztiey barcca-  
 tu cerauen.

Hala bada guri ere gueure Iaincoac, bere az-  
 quen finean hiliceco dembora hurbildu ceica-  
 neau, erran ceracun. Iende onac badacufa-  
 çue nola nagoen neutre azquen pontuaren bez  
 persu nola bihar hil behar dudan: bada baldin  
 orainocoan bat ere onrafunic eguin baderat-  
 çuet baldin deusetan ere ene alderacotçat çot  
 dun edireiten baditutçue ceu en buruoc, gau-  
 ça bat eguin behar duçue enegatic, eta hartçaz  
 quitatcen çaituztet. Ha iauna erraçu cer, ce-  
 ren bihotz gogorra eta eçagutça gutitacoa iça-  
 nenda, çu becalaco aitaren manua, eta pontu  
 horretan emana complituco eztuena. Cer?  
 Elccar onhetz deçaçuela, etsaiari ene amoreac  
 gatic barcca diaçoçuela. Haur da ene azquen  
 vorondatea, eta guztien gaiñetic gomendat-  
 cen deratçue dana.

Beraz ezta ezetz erraiteric, barccatu behar  
 diogu gueure etsaiari, eguin ongui eta eduqui  
 amorio. Ceren hala manatu baicaitu gueure  
 laungoicoac. eta manatu ere, ez ez noiz na-

GVEVRE ETSAIARI DIOGVN 331

hi den, baiña bere azquen finean, bat bedera  
ri, den hiekie trapiena ere, bihotzean batrena  
farthu behar litçay caion demboran.

*Bi garren arraçoina, cor gatic behar diogun gneure  
etsaiari barcatu da ceren mendatæcea beret-  
çai beguiratcen baitu Iaincoac.*

CAP. XXIII.



Ehorc bide gabe bat eguiten derat-  
çuncan eztu nahi Iaincoac çuc or-  
daiñic bihur diaçoçû: berac hartcé  
du bere gainera, mendecatcea eta  
iusticia eguitea. *Mea est ultio, & ego retribuam  
eis in tempore.* Etsaiac gaizqui bat eguiten de-  
ratçuncan, çuri baiño guehi ago eguiten dio  
Iaincoari ceren hartan, haren manua lauffen  
baitu. Ordea eztu hargatic Iaincoac bere hala  
gaztigatcen, iguriquitcen dio, eta iguriqui a-  
gatic eztu defohorelic. Beraz eztuçû çuc ere  
defohorelic içanen, berce munduraino igu-  
riquitceaz, hareraino ez mendecatceaz. Bal-  
din orai pacientia baduçû, Iainçoari berari,  
berac daguiela vitzen badioçû, çaren segur,  
berac berari eguin çaicen bide gabea, eta çuri  
ere egui deratçurena, colpe batez, escaz gabe,  
eta mercei beçala gaztigatuco diruela, eta be-  
har den dezçargua etsaiari eraguiné derauata.

Deuc 32

Roma. 123

## 332 CERGATIC BEHAR DIOGVN.

Cerori ceure escuz mendecatu nahi baçara penatu behar çara, eta anhuç-etan ere deus ecin eguinez guelditu behar çara. Ceren venturaz etsaiar çanen baita, çu baiño indartsu ago eta botheretsu ago. Eta Liuioc dioen beçala *Vana sine viribus ira*. Indar gabeco colera, hafserrea eta mendecatceco desira parric ecin iragan deçaquey enarena, vanò da, alfer eta guti valio. Eta erraiten du Senecac ere. *Ergo ab ira abstinentum est, siue par est qui laceffendus est siue superior, siue inferior. Nam cum pari contendere anceps, cum superiori furiosum & cum inferiori sordidum*. Nola nahi den dela, beguiratu beharda iharduquitcetic, eta etsaiaren acometatcetic, nahiz dela etsai hura çure berdin, nahiz handi ago eta, nahiz ttipi ago. Cerè berdinarequin iharduquitcea, dudos da eta perilos handia goarequin erhoqueria, eta ttipi agoarequin itsusi eta defohorè. Eta guztiarequin ere haur hunela delaric, eta dela daquicularic ere, iharduqui nahiz çabilçça, desira gaixtoz berthea çaude, eztiocçu etsaiari barccatu nahi. Eta hartan ceure burua galteen duçu. Ceren hartan ceure buruari, etsaiari baiño calte guehi ago eguiten baitioçu. Hala emaiten du aditcera Erregue Dauitec, erraiten duenean.

Pfaln 117. *Circumdederunt me sicut apes.*

Inguratu nenduten etsaieç, erlec beçala. Erleac nehor autsiquitcen duenean autsiquitcen ago du bere burua, Ceren bere eztena eta bicia han vtzten baititu. Hala guerthar-

Liuius dec.  
1, lib. 1.

Senec lib.  
de ira cap.  
34

## GVEVRE ETSAIARI BARCCATV 333

cen çaitçu bada çuri ere, etsaiari autsiqui eguiten dioçunean, barccatu nahi eztioçunean eta bide gaberik eguiten dioçunean, guchi ago eguiten dioçu, ceure buruari.

Eta pontu hunen gaiñean, gauça bat, erran nahi deratçut, iaquin behar duçu ecen çuc ceure etsaiari ez barccatu agatic, eztela handic seguitcen, baldin harc bere aldetic bere eguin bidea eguiten badu, eztioela hari laincoac barccatuco. Orduan ez barccatceaz, ceure buruari eguiten dioçu calte, eta ez ceure etsaiari.

Eta hala beñhi ere bai, baiña guztiz ere cerori ecin mendeca çaitzezqueyenean, consola çaitte eta iaquiçu ecen, laincoa mendecatuco dela. Eta harc eztuela vtzten, eta ez vtico ere, saltaric, gaztigatu gabe: eta çuc cerorec eguinen cinituen baino, cintqui ago, eta fintqui ago gaztigatuco dituela. Eta nola anhitz etan ere, aita batec bere semea cehatu duenean, çathircen baitu cigorra, eta egotzien sura: Hala çure etsaia, çure cehatçaillea eta penatçaillea ere çathituco du laincoac, eta azquenean egotcico ifernuco sura.

Beraz hunelatan presuna batec, bide gade bat eguiten erraiten edo pensatcen deratçuneã erran behar dioçu laincoari. Jauna badacusaçu certan naicen, eta cer eguin derautan: eta çuri, niri baino guchi ago eguin deratçu. Eta çuc badaquiçu, nic baino hobequi cer gazti gu eta cêbat merci duê ezta beraz arraç oin çu çarrê leccuan, nic escuric har deçadan. Eta ha-

## 334      CERGATIC BEHAR DIOGVN

la arraçoiñ den beçala eta manatcen duçun beçala, cerorri vtzten deratçue ceure eguiçua iusticia. Eta huneiñ bertceç, ceren fida baiñaiz, eguinen duoula Oray danic mendecatutçat da- ducat neure burua, eta guelditcen naiz neure baithan sosegatua, eta etsaiari barçcatcera deliberatua.

---

*Hirur garren arraçoiña, eta oraitcoz, <sup>az</sup>guenaç  
barçcatu behar d.ogua gueure etsaiari  
Iaincoac guri barçcadia çagun  
amoreac gatic*

## CAP. XXX



Math. 16

Ebar diogo gueure etsaiari barçca- tu, guri ere gueure Iaincoac bar- ca diaçagun gatic. Ceren Iaincoac berac errana da, ecen baldin bar- catcen baderauçagu guc gueure etsaiari, bar- catuco deraculañarc ere guri, baiña ez bert- eela. Eta ezcára gaizqui, guc gueure etsaiari barçcatceç, Iaincoac guri, barçcatcen dera- cuncan: ecin erran diteque, cein irabaci han- dia eguiten dugun hunetan. Ceren nola gauça appurra baita guri eguiten çaicun bide gabea baita handia, eta aldeç infinituqui handia, guc Iaincoari eguiten dioguna, gure barçca- médua ezta deus lascoarenarequi cõparaturic

Badira gauça batçue, berac baccatic, bere eguiteç gaitz baitira, baiña bertce batequin iuntaturic eta elcear harturic erraz dira. Odol

## GVEVRE ETSAIARI BARCCATV 335

atheratcea copatcea, purga vher baten, edari min baten edatea gaitz da, penos da, baiña ofasunarequin iuntaturic erraz da. Sendatcea gatic, gogotic, errecibitcen era pairatcen dira Hala etsaiari ere eguiten derauzquitçun faltent barccatcea, bera barccatc bere eguitez, gaitz da, Ordea iunta ezaçu, hargatic çuri laincoac, eguiten derautçatçunac barccatcearequin, era ercax idurituco çaitçu. Ertaçqui barcatuco dioçu ceure etsaiari, laincoac çuri barcca diaçaçun gatic. Eta hala iende galduac era adimen du gabcac içanen gara, baldin gueuro probetchua gatic bedere, gueure etsaiari barccatcê ezpadio gu. Eguiçu cõru, ea cenbat becçatu eguin ditutçun orai nocoan, eta cein handiac era nahi baduçu çue barcca diaçatçun hec çuri çeure laũgoicoac, barcca iatçotçu çue ere ceure etsaiari, eguitê derauz quitçunac Presuna batec bide gabe bac eguitê deratçunecã erraitê duçu, eztiuçula barccatu nahi, ez behintçat hain site. Cerê defohore ere badela, bere hala barccatcea. Hori da blasphemias hãdia, laincoarê cõtra minçarcea Ceren hori da laincoaren manusren cõplitçea, defohore dela, erraitca. Barccatu hebar dioçu beraz ceure etsaiari, eta barccatu ere, ez ez edo cein moldez, ez hitzez itçhura penez, camptic eta edergaillu: baiña cin cinçz eta gogotic barrenetic eta bihotzeric. cerê iaquiçu ecen bertçela ezteratçula laincoac

## 336 CERCATIC BEHAR DIOGVN

barccatuco. cofessaahal çaitzque ,gorputz  
 faindua errecibi , barur,ofacinotan egon , eta  
 duçun guztia probey eman, baiña hec guztiaç  
 etçaiçquitçu deus valiaçuco , baldin barrene-  
 an nechori herraric , heguigoaric, gorroturic  
 edo vorõndate gaixtoric badiaduçoçu. Eztite-  
 que çauria fenda, elhorria barrenean deñio,  
 eztiteque beccatua barcca , vorõndate gaixro-  
 ac dirauciño. Barberçc buruco çaurietan,le-  
 hemic haraguja aldaratcen dute etz heçur crof-  
 coa eguertcen , bitartean odol vstelic gueldi  
 eztadin. Ceren baldin gueldi baledi, harc mi-  
 dicinari eta eçarten den erremedioari , indar-  
 ra flaca liaçaiõ eta verthutea edequi : Hala ari-  
 maco çauri hunetan ere, lehemie behar da bar-  
 reneco odol vstela , eta etçaiçoaren vherfatu-  
 na athera eta garbitu. Ceren berçela ezta fen-  
 datcetic , eta ez emaiten diren midicinec , eta  
 eguiten diren erremusinec barurec , oracinoec  
 eta bertce obra onec on egüteric.

## §. I.

**B**ere etçaiari barccatu nahi ezteraucanac,  
 eztu editenē bere behar orduā aratcetic  
 eta ez othoitz eguilleric. Ceren Spiritu fain-  
 duac dioen beçala. *In hominem sibi similem non  
 habet misericordiam, quis exorabit pro peccatis  
 illius.* Bere lagunaz , bera beçalacoaz eztu  
 misericordiaric , eta ez vrricalmenduric  
 norē eguinen du bada othoitz halacoa-

Ecclesi 29

## GERGATIC BEHAR DIOGVN 337

ren beccatuac gatic? Ez sainduc, ez Ainguiruc eta ez are misericordiaren amac ere. Ceren Iacob 2.  
jondone Iacuec dioen beçala. *Iudicium sine misericordia, illi qui non faciit misericordiam.* Misericordia gabeco iusticia, eguin behar çaica, misericordiaric, eguiten eztuenari. Et çaica barçatu behar, barccatu nahi eztuenari. Eta halacoac eztu berac ere nahi barcca diaçoten. Ceren, *Pater noster*, erraiten duen guztian, eguiten dio Iaincoari ochoitz, erraiten duela.

*Dimittite nobis debita nostra, sicut & nos dimittim⁹ debitoribus nostris.* Matth. 6.  
Iauna barcca iatça gutçu gueure çorrac, guc gure gana çordun direney barccatcen derauztegun beçala. Erran nahi du. Iainco iauna barcca iatça gutçu çure alderacoçat eguiten ditugun falrac, eta beccatuac, guc gueure etfaiey, gure alderacoçat eguiten dituzten hutsac, eta gaizquiac, barccatcen derauztegun beçala. Eta ala baiña ezterauzetçu çuc barccatu nahi, ceure etfaiey, eguiten derauz quitçutenac, beraz eztuçu nahi barcca diatçatçun çuri ere ceure Iaincoac, eguiten derautçatçunac. Ceren nola eguiten baituçu çuc çeure etfaiarequin, hala eguiten dioçu Iaincoari ochoitz, daguiela çurequin.

Falta bat nehorc eguiten daratçunean, erraiten duçu duçun bothere guztiaz : Nic haur hari barcca, lehen bicia galneçaque. Eta



## 338 CERGATIC BEHAR DIOGVN

eztuçu consideratcen, eta ez penfatcen, çuc Iaincoari falta handi agoac eguin agaric, nahi duçula guztiarequin ere, harc çuri guztiac barccatdiatçatçun.

Considera eçacu bada çuc, ceure etsaiari barccatu nahi ezterauaçuna, barccatu cerauela Iaincoac, bicia edequi ceraucaten etsaiçy, eta are guehi ago eguin ceraucala bere aithari, hequen gatic orhoitz, eta oraiño ceure etsatec ez teratçutela çuri halaco minic, eta chimicoric eguin considera eçacu halaber, cer erraiten duen Spiritu sainduac. *Memento nouissimorum & desine inimicari.* Orhoitçaiteci ceure azquen fineco eguitecoez, heriotceco pontuaz, arimaren ilquitceco dembora perilos hartçaz, eta orduan eman beharco duçun contuaz, eta hetçaz orhoiturie, vtzquitçu etsaigoac. Orhoitçaiteci nola nabico duçun çuc orduan, azquen oren hartan, eguin deçan Iaincoac çurequin; eguiçu bada çuc ere orai hala ceure etsaiarequin. Ceren haur da Iaincoaren manua; haur da harc nahi duena; haur da bethi ere, eta guztiz ere bere azquen finean gomendatu deraçuna.

Bihoa beraz etsaigoa, aparta bedi egun beretic, gueroco luçatu gabe, mendecatceco desira desordenatua. Ceren halatan içanenu gara eçagun, eta seiñale, Iesu Cristoren escolan iccassiac garela, haren discipuluac garela. Eta bicico gara bihotz vccaldiric, assalduric,

EGVITENDITVEN CALTEZ. 339

eta iccararie gabe; baqueah dagoen bat, mendecuric gogoan eztuen bat, eta guztiequin adifquide, arroncer, eta solhasturi deo-  
bat, bicitcen den beçala.

*Cenbat calte eguiten duen haraguiaren beccatuac, lehenbicicoric isfucen duola adimendua, eta nola behar den hartan sartcesic beguiratu, eta sarthuz guero ere, lehen baiña lehen ilquiscera en-  
seiatu.*

CAP. XXXI.

**B**Aldin bertce beccatuetan hanbat calte eguiten badu hucamendutan ibiltceac, erremedioaren guero vtzteac, cer eguinen du emaztètaco beccatuan? Haraguiari hain plazer çaicari placerean? Bat bederac naturalqui desiratcen duenean? Eta baldin errden eguiterac vtz badadi, atieratecco, eta camporatcecco hain gaitz denean?

Baiña ceren materia haur baita hain handia, eta lucea, perilosa, eta limburcorra; diçagun lehenic eguité ditué calteac, eta emaiten diruen eguitecoac confidera, eta conta; eta guero halaber eman behar çaitçan purgac, eta erremedioac bilha, eman, eta ordena,

Eta itças hondar gabe hunetan sartcen nai-

## 340 HARAGVIAREN BECCATVAC

cela, eztut vste dela, eztaquenic, gure ari-  
maren etsaiac direla hirur.

Mundua, Deabrua, eta haragui. Eta hirur  
hautaric gaixto ena, perilosena, eta barren-  
correna. dela haragui. Haurda etchecho ohoi-  
fia, barreneco etsaia, bethiere gurequin da-  
goena: Qurari pipia, oihalari cerrena, vrdaiari  
cedena, eta haraguiari harra beçala, gau eta  
egun alha çaicuna; tentatcen, eta narritatcen  
gaituena, gueure ganic ecin egotz deçaque-  
guna. Halaco moldez ecen errax ago baita  
hartçaz minçatcea, eta beguiratu behar dela  
erraita, beguiratcea baiño. Hala erraiten du  
Valerioc. *Luxuriam accusare facilis est quam  
vitare.*

valer. max.  
lib. 9. cap. 1.

Flaco da haragui eta sendo. Flaco deffen-  
datceco, sendo tentatceco, eta quillicatceco.  
Anhitz habe, fabore, eta sostengu behar du, on  
edukitceco, erori gabe egoiteco, eta asco du  
deus guti, occasino ttipi bat, limburtceco, be-  
haztopatceco, eta erortceco. Hargatic erran  
quen san Agustinec. *Inter omnia Christianorum  
certamina, sola duriora sunt praelia castitatis, ubi  
quotidiana est pugna & rara victoria.* Guiristi-  
noen arteco guerlaric handienac, eta gogor-  
renac, castitatearen guerlac dira. Cerenhan  
baita gudua, eta combata egunoro, eta victo-  
ria, eta garaitia, bakhan, era gutitan. Halatan  
da san Agustinec berac errana. *Nulla tot Dia-  
bolus aniras rete capit, quod laqueo pessimarum.*

Aug. serm.  
250. de tēp.  
Tom. 10.

Aug. epist.  
206. T. 2.

## EGVITEN DITVEN CALTEZ. 346

*mulierum.* De abruac anhitz sare badu ere arimen atcemaiteco, eztu batez ere hanbar atrapatcen, nola emazte gaixtoez, eta hec hedatcen, eta paratcen dituzten artéz, sareéz, lachi-oez, eta segadez.

## §. I.

**H**Andiac dira haraguiac, eta haraguiaren amorio defordenatuac eguitendituen calteac. Eta calte pincipalenetaric bar; pincipalena ezpada ere, da adimen duaren goibeltcea, ilhuntecea, eta itsutcea. Presuna amurufac ezta cusa, ezta qui cer hari den: bere gogoztza haraguiac daduca: iatean edatean, ohean datçanean, hartan pensatcen du: bere solhasac, eta ametfac ere, hartçaz eguiteintu: eztu nahi bertce gauçaz nehor mintça ere daquion: itsuda, erhoda, cençutic campoanda. Halatan lehen agoco Poetec pintatcen cuten Cupido, amurufiaren laincoa, haurr, eta itsu. Itsu, ceren ez paitu iccusten. Haurr, ceren ezpaitu adimenduric. Eta badio Plutarcoc ere. Gaitz dela, amurus içaitea, eta centçuan egoitea.

Halacoa ez defohoreac, ez iendèn erraiteac, Plutar. in Aphodite. ez onen gaitatceac, ez fama gaixtoan iartceac, ez loaren gaitceac finean deusec ere

## 342 HARAGVIAREN BECCATVAC

Jerem. 2.

eztu guibelatcen. *'Onager affuetus in solitudine,*  
*in desiderio anima sua, astraxit ventum amoris sui,*  
*nullus auertet eam.*; Bafa-asto amurufa beçala,  
 beguiac itsuturic, ihiztarien artetic iragaitenda; edo cein periletan sartcen da. Bere amorio defordenatuaz bai, bere amurufiaz bai baiña gairacoaz eztu conturic eguiten.

Vfoa beçala da halacoa. Vfoac eztu, bertce hegaztinec beçala, edatean burua goiti ailtchatcen. Edan gogo duena, abreac beçala, hatfic hartu gabe, burua goratu gabe, colpe batez edaten du. Bertce hegaztinec edateco curca guztietan, ahatara baccotchean, burua goiti ailtchateen dute. Eta badirudi ecen naturaleçac berac eratucifiric eguiten dutela hala. Ceren nola orduan baiture perilie guehiena, ceren orduan baitaude gueldi enic vrebcha; eta orduan baitira ihiztariez ere eelatatuac, barrendatuac, eta guardiatuac, halatan daude hec ere iratçarriac orduan. eta edaten duten vrchorta guztietan ingurunera behatcen dute, eta burua goiti, guardia eguitereco beçala ailtchatcen dute. Baiña Vfoac eztu halaçoric eguiten, ahoz-peç dago asse arteifio, eztu bitartean bururic ailtchatcen, eta ez ingurunera behatcen. Eta hartan da agueri vfoaren inocentcia, eta erguelqueria, perilie guehien duenean, baita erhoenic eta antificabenic. Hala da bada bere gogo guztia emaztetan ibenia daducana ere. Etsaia celatan

## EGVITEN DITVEN CALTSZ. 343.

dagocanean,perilic guehien duenean,da gal-  
duenic,eta erhoenic. Ceren bere edate hart-  
çaz , eta plazeraz baicen , ezpaitu deufez ere  
bertceç,conturic eguiten.

Cyro Emperadore handi hura, hain icfutu,  
eta erguel du çuen, Apama bere amoranteat,  
non hartçaz nahi çuen guztia eguiten bait-  
çuen. Alde batetic, eta bertcetic beharondo-  
ca hari ceican, batean biçarra, bertcean be-  
harriac thiratcen cerautçan : haur batequin  
beçala, harequin dostatcen cen. Eta guztie-  
tan Emperadore erhoa, horzac hirrituric, ir-  
riz, beha cegocan : miraillean beçala hartan  
miratcen cen, haren alegueratceaz, alegue-  
ratcen cen, eta tristetceaz tristetcen. Eta  
emazte gaixtoac batçutan bere burua, be-  
rriaz hasferre iduri eguiten çuen : eta or-  
duan Emperadore çoroac, ahal ciren asmu-  
ac, eta enfeiuac balacatceco, eta baquet-  
ceco eguiten cituen. Amorantea cen nabusi-  
no, cen tho : emazte aguiçon : oilloa, oillar.  
Erran behar da escu handia hartcen duela  
emazteac amurus isfutuaren gainean, halaco  
Emperadore bat, ema-eztheus batec, hala er-  
rendatcen duenean,

Joseph. de  
Antiq. lib.  
11. cap. 3.

## 344 HARAGVIAREN BECCATVAC

## §. 2.

**C**Viçona delaric ordenatua, emaztearen  
 Ciaun, eta nabusi içaiteco, guztiarequin  
 ere, amorio itsuac, haraguiaren appetitu de-  
 fordenatuac, hauften du ordenantça haur:  
 guiçona eguiten du emaztearen muthil, eta  
 azpico. Eztagauçapreciatu agoric, liberta-  
 tea, eta nabusitasuna den baiño. Bada hala ba-  
 ta nola bertcea galtceintu amurus itsuac,  
 emaztearen hirtz ederrey, eta maifey, behat-  
 cen çayenac. Hala galdu cituen bere liberta-  
 tea, nabusitasuna, eta bai azquenean bicia ere  
 Affirioen Erregue batec, Semiramis, çen hu-  
 netaco bi garren emazte eder famatu hura  
 cela çausa. Eta içan cen casua Eliano grecia-  
 co esquiribatçaille batec, contatcen duen be-  
 çala. Ençû çuenean Erregue harc Semiramis  
 haren edertasunaren fama, quillicatu cen, gu-  
 ticiatu cen: eraccarri çuen: iccussi çuen, eta  
 iccussi çuen beçain fite, atceman cen, sua  
 pirtzu cen, eta amorio hero itsu batez onher-  
 fi çuen. Eta noiz, eta amorio hura baitcegoen  
 gorèn pontuan, eta graduan, idurituric ecen  
 orduan cela occasinoric, eta paradaric hobe-  
 rena, nahi çuenaren eguiteco, eguin cioen  
 emazte gaixtoac othoitz Erregueri, arren  
 dembora

AElian. de  
 varia hist.  
 lib. 7.

EGVITSENDITVEN CALTEZ. 345

dembora appur batez , bortz egunez , eman-  
 ciaçola bere çuen escua, eta botherea, bitar-  
 tean vt zceçala errefuman manatceru. Erre-  
 guec aiccin guibel guti behaturic , eta Salo-  
 monen cõseilluaz ere contuguti eguinic, ce-  
 nec erraiten baitu. *Non des mulieri potestatem*  
*animæ tuæ , ne ingrediatur in virtute tua & confu-*  
*daris.* Eztemoçula emazteari ceure duçun es-  
 cua, eta botherea, nahi ezpaduçu ceure burua  
 ahalquetan iccussi. Baiña maliciariç edo en-  
 ganamenduric ahal çatequeyenz gogora ere  
 gabe, errar cioen deblauqui Erreguec, baietz  
 deufetan ere dudatu gabe : Eta are berac le-  
 henic agur eguin cioen ; berac bere escuz co-  
 roaburuan ibeni cioen : eta manatu çuen, bi-  
 ciaren penan , hurreneco bortz eguneran  
 Semiramisharc manatcen çuen guztia, eguin  
 cedilla. Eta hain aiccin iragan cen eguitecoa,  
 non iccussi çuenean emazte gaixtoac , nola  
 cen obeditua , manatu baitçuen, Erregue be-  
 rari burua edequi ciaçotela. Eta nic eztaquit  
 nolahartu çuen Erreguec eguitecoa, baiña  
 bere hala manua complitu cen , eta trufan  
 burlan burua edequi cioten. Eta guelditucen  
 Semiramis Erregue, eta Erreguina : eta Erre-  
 gue itfua bere errefuma, eta bicia galduric  
 defohorezqui finatua. Iccussaçu cer eguiten  
 duen emazteac , eta emazteaco amorio de-  
 fordenatuac, nola guisona itfuten duen ; nola  
 cer hari den eztaquiela milla erhoqueria

Eccle. 9.



## 346 HARAGVIAREN BECCATVAC

eguiten duela, eta bere buruaren iaun, eta ia-  
be ezten beçala ibentcen duen.

Alexander  
ab Alexan-  
dro lib. 4.  
cap. 1.

Zaleuco Greciaco parte batçuetaco Erre-  
gueac, iccuffiric ecen beccatu hunec, bat be-  
dera bere adimenduan barrera itsutcen çue-  
la, campoan ere itsutafun hura aguer cedin  
amoreac gatic, ordenatu çuen, eta ççarri le-  
guea, noi ere erorico baitcen adulterioan, eta  
noie ere behar etcen emaztearequin huts  
egumen baitçuen, halacoari, eta halacoey,  
hainari, eta hainey, hala guiçonari nola emaz-  
teari, iusticiac beguiac atheraco, eta iracico  
cerauztela: Barreacn, culporen veldur ga-  
be, itsutu cirenaz guero, campoan ere pena-  
requin itsu citecin gatic. Legue haur ibeni  
çuen Zaleuco Erregue harc. Era hain herflu  
quibeguiratcen çuen, non ezpaitcen, fabo-  
reric, ahaideric: adisquideric, eta ez vrreric,  
eta ez çilharric hauts araci ahal çiaçaionic.  
Huts eguiten çuenac, ihes ahal ceidiçueyen  
alba ceguien, haina atrapatuz guero, etçuen  
barcca menduric, beguiac galdu behar çiru-  
en. Erregue hunec legue haur hunein cinez  
beguiratcen çuen demboran, çuertharu çei-  
can Erregue hunen beraren semeari, leguea-  
ren haustera, eta behar etcen emaztearequin  
huts eguitera. Erreguec bere semearen falta  
haur iaquin çuenean, laincoac daqui cenbat  
damu harcen çuen: eta nola alde batetic bere  
aitatafunac, semea gana ceducan amorio na.

## EGVITEN DITVEN CALTEZ. 347

turalac guibelatcen çuen, efcuac lotcen ce-  
rautçâ; eta etcela arracoîn aita barec-bere fe-  
mea condena ceçan, erraiten cioen.

Eta berriz bertce aldetic nola iusticiac ale-  
gatcen cioen, legueac beguiratu behar cirela,  
eta batari barccatceaz, bertceac ausartcia  
hartuco çuela. Eta iusticiaren arraçoïn haur  
bortitz ago idurituric, semea galduco baçuen  
ere, deliberatu çuen, eta mauatu, iusticia  
eguin cedilla, bere semea atceman ciaçotela,  
eta beguiac leguearen arauaz athera ciatço-  
tela. Errefumac iaquin çuenean bere Erre-  
gueren deliberamendua, vildu cen comun  
guztia, eta ioanceican guztia batetan othoitz  
eguitera, arren nahi cioen bere semeari barc-  
catu. Ceren legue hura comuna gatic eguina  
cela, eta comunac, hain Erregue onaren, eta  
iustuaren amoreac gatic, aldi hartacotz bere  
çucena quitatcen çuela. Comunaré othoitz-  
ac, eta semea ganaco amorioac anhitz go-  
goeta eraguin ceraucaten, baiña guehi ago  
leguearen hautsteac. Ceren iduritcen cei-  
can ecen etçuela bere coroa segur içanen,  
baldin ttipiençat beçala, handientçat ere  
iusticia eguiten expaçuen. Eta hala anhitz  
itçul inguru, pensu, eta gogoeta bere bai-  
than eguinic, azquenean ediren çuen bide  
bat bere caltetacoa, baiña semearen gazti-  
guaren arinteeto ona. Okher hobe, itsu  
baiño. Ordonatu çuen, ecen halaz, eta leguea-

## 348 HARAGVIAREN BECCATVAC

ren arzuaz, halaco hutsic eguiten çuenari, bi beguiac iraci, eta athera behar ceitçanaz gueroztic, athera ciaçotela aitari berari bere beguetaric bata, eta femeari berètaric bertcea. eta halatan, bien artean caltea iafanic, leguea beguira cedilla. Eta hala ordenatu beçala complitu cèn. Aitac, eta femeari bere beguetaric bana galdu çuten. Eta guero handic harat guelditu cèn leguea confirmatua, femeari gaztigatua, erresuma guztia iccaratua : eta halaco saltaran erortcen cenarentçat, barcamendu erdiesteco, çesperantçaren athera, heriçia.

Laudatçecoa cèn Erregue hura, eta bai ibeni çuen leguea ere : ceren eritasunari cegocana baitcen. Halatan itsutasunaz itsutasuna, gorputzçeoaz arimacoa fendatçeco, eta aitacincrat çuehi ago eritçetic, eta halacoric guerthacetic beguiratçeco. Ceren haur da haraguiaren defira defordenatuac eguiten duen lehenbicico caltea, eta colpea, adimenduaren itsutcea, liluraceca, nahastea, eta çoraturic ibentcea.